

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

01/2020 kredituak 2020ko ekitaldian sartzeko aurrekontua aldatzeko espedienteak eta 2/2020 kreditu gehigarria behin betiko onartzea

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 2/2004 Foru Arauaren 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, eta ez denez inolako erreklamazio edo oharrik egin 01/2020 kredituak 2020ko ekitaldian sartzeko aurrekontua aldatzeko espedientei hasierako onespena emateko erabakiaren eta 2/2020 kreditu gehigarriaren aurka, espediente horiek behin betiko onartu dira, honela:

A) Kredituak sartzeko aurrekontu-aldaketa 01/2020.

Altak gastu partidetan - igoerak

[Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 32.3 artikulua]

GASTUEN PARTIDA	KREDITUAREN GERAKINAREN DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
3421.622020	Frontoiko zorua pintatzea	3.700,00
3422.622020	Ostuñoko igerilekuak – 2. fase	511.626,45
9430.734000	Herrietako azpiegituren obrak	37.000,00
1520.211000	Udal etxebizitzak konpontzea, mantentzea eta kontserbatzea	288,00
1520.221040	Erregaia – Udal-etxebizitzak	384,00
2310.481001	Haur, gazte eta adinekoei zuzendutako jarduerak	2.000,00
2311.221040	Erretiratuen etxeko erregaia	576,00
3340.481000	Kultur elkarteak	3.996,63
3410.481000	Kirol elkarteak	2.620,78
9420.421000	Gorbeia Inguruetako Partzuergoa	35.879,52
Guztira		598.071,38

Sartu beharreko kredituen batura 598.071,38 eurokoa da.

B) 02/2020 kreditu gehigarria.

1. Kreditu gehigarriaren espediente honen helburua da erakundearen aurrekontu orokorra aldatzea Zuiako eguneko arretarako landa zentroaren (EALZ) 2017ko eta 2018ko ekitaldiei dagozkien likidazioak ordaintzeko:

Gastuen aplikazioetako altak

AURREKONTU - APLIKAZIOA	ZENBATEKOA
2310.434.00 – Eguneko zentroaren mantentze-lanak	20.128,54
GUZTIRA	20.128,54

2. Aldaketa hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, eta espedientea berdinduta aurkeztuko da, defizitik sortu gabe:

Sarreren aplikazioetako altak

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	Diruzaintzako gerakina - gastu orokorrak	20.128,54
GUZTIRA		20.128,54

Espedientea finantzatu behar duten baliabideen batura 20.128,54 eurokoa da.

Izarran, 2020ko ekainaren 18an

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA